

PRENTSA-OHARRA: 2021.07.05

Bi euskal galeria izango dira ARCO nazioarteko arte garaikideko azokaren 40. edizioan

- **CarrerasMugica eta Cibrián euskal galeriek erakustoki bana izango dute, uztailaren 7tik 11ra, Madrilgo IFEMArean erakustazokan**
- **Besteak beste, ikusgai izango dira Txomin Badiola, Juan Pérez Agirregoikoa, Jon Mikel Euba, June Crespo, Eduardo Chillida, José Ramón Amondarain eta Esther Gatón-en lanak**

[CarrerasMugica](#) eta [Cibrián](#) euskal galeriek erakustoki bana izango dute [ARCOmadrid 2021](#) nazioarteko arte garaikideko azokaren 40. edizioan. Otsailean egitekoa zen azoka COVID-19a dela eta atzeratu eta gero, aurrez aurre egingo da orain, uztailaren 7tik 11ra, hiriburu horretako [IFEMA](#)ren erakustazokan, artearen merkaturia berriro abiarazteko eta sustatzeko helburuarekin. **Etxepare Euskal Institutuaren** laguntza izan dute biek ala biek nazioarteko arte-azoketan standak alokatzeko, euskal sortzaile eta artisten lana zabaltzeko helburuarekin ematen diren arte-galerientzako dirulaguntzen bidez.

Horrela, Bilboko CarrerasMugica galeriak honako euskal artisten lanak izango ditu erakusgai: **Txomin Badiola, Juan Pérez Agirregoikoa, Jon Mikel Euba, June Crespo** eta **Eduardo Chillida**; ikusi ahalko dira, baita ere, **Armando Andrade Tudela** perutarren eta **Angela de la Cruz** galiziarren obrak.

Bestalde, 2018an sortutako Cibrián galeria donostiarrak lehenengo aldiz parte hartuko du, **Opening** sailean (Övül Ö. Durmusoglu eta Julia Morandera komisario dituela) bi standekin: 9OP01 eta 9OP01A. Lehen sekzio horretan izango dira **José Ramón Amondarain** artista donostiarraren eta **Esther Gatón** Valladolideko artistaren lanak. Gatón-en proiektu bakarra bilduko du bigarrenak.

Bi euskal galeria hauek Arcon parte-hartzearen harira, **Imanol Otaegi** Etxepare Institutuko Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendariak nabarmendu du “berri pozgarria” dela, izan ere, “bi euskal galeriak parte hartu zuten azken aldia 2016. urtean izan zen, CarrerasMugica eta Altxerri galeria bertan izan zirenean”.

“Espero dezagun, aurtengo edizioak artearen merkatua eta topaketa profesionalak suspertzeko balio izatea”, gaineratu du euskal galeria hauen lana babesten bertan izango den Otaegik.

Ibarrolaren ‘Guernica Gernikara’

Agustin Ibarrolaren ‘Guernica Gernikara’ (1981) margolana ere erakutsiko dute ARCO azokan. Bi metro altu eta hamar metro zabal dituen horma irudi bat da, zeinaren bidez Ibarrolak, Picassoren maisulanari gorazarre egiteaz gain, pieza Euskal Herrira eramatea eta ez Madrilera aldarrikatu zuen. Orain, askok galdutzat ematen zuten Ibarrolaren lana José de la Mano galeriak berreskuratu du, eta erakusgai jarriko du ARCOan, Picassoren koadroa New Yorketik Madrilera eraman zuteneko 40. urteurrenaren harira.

Bestalde, Bilboko [Consonni](#) argitaletxeak [ArtLibris](#) foro profesionalean parte hartuko du, artisten argitalpenei buruz eta haiek beren sormen-prozesuan duten lekuari buruz hitz egiteko gogoeta- eta topaketa-gunea.

ARCOmadrid-en aurtengo edizioan, 27 herrialdetako 131 galeriak parte hartuko dute —%54 nazioarte mailakoak—. Kalitate handiko proposamen artistikoak eskaintzea espero dute antolatzaileek, Latinoamerikako arteari eskainitako atal berezia barne. Era berean, berrikuntza gisa, artista-proiektuen atalean

emakumezkoek egindako artelanak baino ez dira bilduko, emakumezko sortzaileen ikusgarritasuna eta protagonismoa handitzen laguntzeko asmoz.

Info+

Beñat Doxandabartz
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus